

PRENTSA JARDUNALDIETAKO ONDORIOAK

EUSKALKOM

Euskalkom-ek antolatutako Prentsa Jardunaldietan parte hartu zutenek ondoko zortzi puntuetan laburbiltzen diren ondorioak plazaratu zituzten Jardunaldien bukaeran, Donostian, 1996ko ekainaren 1ean.

1.— Euskarazko prentsak funtzio garrantzitsua betetzen du hizkuntz komunitatean. Euskal Herri mailako lotura mantenduz, hizkuntza komunitatea trinkotzen duen elementu apurretako bat da. Bestetik, euskaraz bizitzeko ezinbesteko elementua da.

2.— Irauteari begira jarrita daude energiarik gehienak. Irautearekin eta produktu horretarako egokitze eta hobetzearekin

asko egiten du euskal prentsak. Eta hori egiteko ere estua-
sun handiak ditu.

3.— Pauso kualitatiboak emateko, azpiegitura indartzeko, gizarteko presentzia soziala benetan hazteko biderik ez du. Hazi nahi, hazi behar eta hazi ezina. Izan litekeenera iritsi ezina da egoeraren laburpena.

4.— Euskal prentsa idatziko langileak lan-baldintza eskasetan daude halaberrez. Amildegia dago ikusentzunezko proiektu publikoetako lan-baldintzen aurrean, eta amildegi hori kaltegarri eta eutsiezina da.

5.— Merkatua osatzeko pausoak ematea lehentasunezkoa da. Irakurketa bultzatzeko modua eratu behar da, irakurle berriak, batez ere gazte-belaunaldiak euskal prentsara sartzeko. Honek sustapen ahalegin handia eskatzen du. Bere lehentasuna azpiegitura eta enpresa-ikuspegia indartzea da.

6.— Lehentasun horietan prentsagileei dagozkien zereginak dira:

- Elkartzea, ikuspegia lantzeko.
- Elkarlan-bideak urratzea. Bereziki publizitatean enpresa handietara iristeko masa kritikoa lortzeko, sustapenerako, horniketarako eta hainbat arlotarako.
- Enpresa-ikuspegia lantzea, lan komertzialean energia gehiago jartzea.

7.— Gizartea sektorearen egoera zailaz eta euskal prentsaren estrategikotasunaz jabetzeko ahaleginak egin behar ditugu.

8.— Erakunde publikoei politikan aldaketa sakona eskatzen diegu. Apustu instituzionalik eta kultur politika egokirik ez dago alor honetan.

Orain arteko laguntzak hiru ezaugarri ditu: eskasa, uneoroko borondateari atxekia, gutxi arautua eta arlo giltzarri batzuk ahaztu dituen. Aspektu negatibo horiek aldatu behar dira, aldaketa sakona eginez:

- Sektorea ren garrantzi eta desafioei egokitutako laguntza.
- Laguntza arautua, jokuko arauak finkatu eta optimizazioa bultzatuko duena.
- Azpiegitura indartzeko inbertsiotarako, sustapenerako, eta merkaturatze/banaketarako laguntza, enpresak etorkizunear burujabeago izan daitezen.
- Publizitate-politika egokia. Euskaraz informatua izateko eskubidetik abiatuta euskararen esparrurako publizitate instituzionalari buruzko araubide bat martxan jarri behar da lehenbailehen.